

## ITZALDU

Maialen Akizu Bidegain

*Urretxu*

Itzalak ere giltzapetu daitezke.  
Ez iezadazu kontra egin, ez egin kontra nire itzalari.  
Bi gara zure aldean.  
Eta badakizu bik batek baino indar gehiago dutela  
bat itzala bada.

Itzala jarri zioten gizakiari  
itzaldu zuten gizakia  
une oro izan zezan  
bakarrik zegoelako susmoa  
eta atzera begiratzera derrigortuta  
senti zedin urduriago.  
Zertan izan ilunpetan ikusten ez duzunaren beldur?  
Ikusten ez dituzun gauza guztiekin.  
Bera hor dago  
sentitzen duzu.  
Bestela hilda zeundeke.

Hargatik zuloratu zituzten itzalak.  
Bakoitza zulo banatan, bereizita.  
Ez zioten errukirik ezeri.

Nahi baitzuten  
eurek ere senti zezaten  
zer den basamortuaren lehorrean  
kare garbia arnastea.  
Itzalak zuri.  
Eurak aspaldi utzi zioten existitzeari.  
Ezereza ere kendu zieten.

Iluntasunaren menpeko da gizakia  
argitan ere iluntasunaren beharra du,  
behar du katea bat  
behar lotura  
existitzen dela frogatzeko.  
Itzalak sortzen ditu eguzkiak.  
Izan baden guztiak badu bat. Gauez ez.  
Ilunak ez du errealitatea itzalez itzal biluzten.  
Badira hargatik,  
ilargiak bakarrik dakizkien egiak.

Ezerez mugatua.  
Katerik gabe,  
nola eutsi kolokan dagoen identitate bati.  
Argitan bizi gara  
gure mugak zein diren ikusteko  
soilik.  
Eta bera da  
zu bezain zu.  
Itzalak ere giltzapetu daitezke.  
Eta oraindik bertan daude,  
inork ez die autopsiarik egin.  
Hezurren usteltzea usaindu dute

mina sentitu  
garrasiak entzun.  
Ba al dago, hilezkor zarela ohartzea baino tortura  
handiagorik?